

Pentti Sammallahti

Uztailaren 15tik Irailaren 19ra / Del 15 de Julio al 19 de Septiembre

Miniaturak /Miniaturas

Bere etimologiaren arabera, miniatura hitza latinezko minare hitzetik dator, zeinak “minioz estaltzea” esan nahi baitu. Minioa berun zuria errez lortzen den kolore gorri-laranjako metal bat da. Antzinako Mesopotamian erabiltzen zuten horma pinturetarako, eta, ondoren, Erdi Aroko eskuizkribu apainduetan. Miniatura koadro txiki bat da, eta hura egiteko, monje kopistak astiro-astiro egin behar du lan, obraren gainean makurtuta, pieza ñimiñoen urregilea balitz bezala.

Kontu, geldotasun eta argitasun hori bera darie Pentti Sammallahtiren argazkiei. Izan Solovski-ko (Errusia) Itsaso Zuriko basamortu zabalak, izan animalia sinesgaitzak bizi diren Europa erdialdeko baso trinkoak, izan munduko mugarik urrunenak, irudi bakoitza istorio txiki bat da, alegia bat, edertasuna existitu dadin ikustea nahikoa dela hitz gutxitan adierazten duen kondaira. Urrutitik zein gertutik, Sammallahti gai da xehetasun bakoitzari, xumea izan arren, eginkizun nagusi bat emateko bere miniaturretan, partitura bateko musika nota bat bezain funtsezkoa. Barrutik ikus daitekeena arakatzen du haren begiradak, eta munduratu egiten ditu partikula autoktono txiki hauek, airea bera baino arinagoa den ikatz hautsa balira bezala.

Formak sortzen dira, haien maiztasunak elkarri doitzen zaizkio, eta, horrela, kristalizatu eta berehala desagertzen diren elkarrekikotasun bitxiak ehuntzen dituzte.

Perla kolore arineko zeru grisak dena estaltzen du. Isiltasuna irristatu egiten da; beltza trinkoa da, baina distiratsu jarraitzen du. Txoriek gau aldera jotzen dute; hodeiek eraso egiten dute; gizakia zeruertzean dago, munduaren mugan. Begiratu egiten du. “Bitxia, zoragarria, ulergaitza” denari egin behar dio aurre. (1)

Berak bakarrik daki hemen egia ukitzen ari dela hatz muturrez.

Pentti Sammallahti (Helsinki, 1950), Finlandiako lehenengo emakume argazkilarietako baten (Hilddur Larsson, 1882–1952) biloba da. Bederatzi urte zitue-nean piztu zitzaion argazkilaritzarekiko interesa; hain zuzen ere, 1959an, aitak Helsinkiko Taidehalli-n Edward Steichen-en “The Family of Man” (“Giza familia”) erakusketa ibiltaria ikustera eramanean zuenean. Hamaika urte zituela hasi zen argazkiak egiten, eta Helsinkiko Kameraseura-ko (Kamera Kluba) kide egin zen. Artearen Historia, Musikologia eta Matematika ikasketak egin zituen. 1974an, Lahti-ko Arte Eskolako irakasle bihurtu zen, eta ondoren, Helsinkiko Goi Mailako Arte eta Diseinu Eskolako irakasle izan zen. Sammallahtik mundu osoan erakutsi ditu bere lanak, zeinak nazioarteko erakunde ugariaren bildumetan baitaude, besteak beste honako hauetan: Bibliothèque Nationale de France, Stockhomeko Moderna Museet, Houstongo Museum of Fine Art eta Londresko Victoria and Albert Museum.



Según su etimología, la palabra “Miniatura” procede del latín minare, que significa “recubrir con minio”, un metal de color rojizo-anaranjado que procede de la combustión del blanco de plomo. Se utilizó en la antigua Mesopotamia para las pinturas murales y luego en los manuscritos iluminados de la Edad Media. La miniatura es un cuadro pequeño, cuya representación precisa exige el gesto lento del monje copista, inclinado sobre su obra, como un orfebre de lo minúsculo.

Es esta misma delicadeza, esta misma lentitud y luminosidad, la que aflora en las fotografías de Pentti Sammallahti. Desde los vastos desiertos del Mar Blanco de Solovski, en Rusia, hasta los densos bosques de Europa Central poblados de animales improbables, pasando por los confines del mundo, cada imagen es una pequeña historia, una fábula, una leyenda que dice en pocas palabras que basta con ver para que exista la belleza. De lejos o de cerca, Sammallahti sabe dar a cada detalle, por tenue que sea, un papel preponderante en sus Miniaturas, tan esencial como una nota musical en una partitura. Su mirada escarba en lo visible desde dentro y saca a la superficie del mundo estas pequeñas partículas autóctonas, como el polvo de carbón, más ligeras que el aire.

Las formas tienen lugar, sus frecuencias se ajustan entre sí y tejen extrañas correspondencias que cristalizan para desaparecer inmediatamente.

El gris ligeramente perlado del cielo lo cubre todo. El silencio se desliza, el negro es denso, pero sigue brillando. Los pájaros emigran hacia la noche, las nubes embisten, el hombre se sitúa ante el horizonte, en el límite del mundo. Mira. Se enfrenta a "lo extraño, lo maravilloso, lo inexplicable". (1)

Sólo él sabe que aquí está tocando la verdad con la punta de los dedos.

Pentti Sammallahti (Helsinki, 1950), nieto de una de las primeras fotógrafas de Finlandia, Hildur Larsson (1882 - 1952), se interesó por la fotografía a los 9 años, cuando su padre le llevó a ver la exposición itinerante "La familia del hombre", presentada por Edward Steichen en el Taidehalli de Helsinki en 1959. Comenzó a tomar sus primeras fotografías a los once años y se unió al Club de Cámara de Helsinki. Estudió Historia del Arte, musicología y matemáticas. En 1974, se convirtió en profesor de la Escuela de Arte de Lahti y, posteriormente, de la Escuela Superior de Arte y Diseño de Helsinki. Sammallahti ha expuesto en todo el mundo, y su obra ha pasado a formar parte de las colecciones de importantes instituciones internacionales, como la Bibliothèque Nationale de France, el Moderna Museet de Estocolmo, el Museum of Fine Art de Houston y el Victoria and Albert Museum de Londres.

(1) Rainer Maria Rilke, Carta a un joven poeta / Poeta gazte bati idatziak (1912)

Anne Morin